

txintxarri



Musikari ezin zaizkio hegoak moztu

Punta-puntako artistak bildu dira Lasarte-Oriara, XIV. Akordeoi Jaialdi hunkigarrian / 5

TXINTXARRI

Motor-erregai usaina

Loquillo Riders motorzaleen elkarteak lehen urteurrena ospatu du, motor hots tartean / 6-7

'Survival Zombie' ekitaldia dela eta, Lasarte-Oria zombien gotorleku bihurtuko da azaroaren 18an / 4

Ostadar Inklusioko gazteek gogotsu eta giro onean ekin diote bigarren denboraldiari / 5

Erreflexuen aurkako
2 mō betaurreko
graduatu

97€

Gure betaurreko
guztiak **bilduma**
berrietakoak dira

www.multioplicasgipuzkoa.com   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



PSE-EEko zinegotzien bozei esker, aurrera ater dira ordenantza fiskalak. TXINTXARRI

Ordenantza fiskalak onartu ditu udalbatzarrak

Ez da aldaketa nabarmenik egon, eta zerga eta tasa gehienek %1,2ko igoera izango dute 2018. urtean. PSEren botoei esker aurrera ater dituzte neurriak. Jesus Zaballos alkateak ordenantza fiskaletan emandako aldaketa eta berrikuntza "txikiak" azaldu ditu.

Nerea Eizagirre

Pozik agertu da Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea ordenantza fiskalak onartu direlako. "Beste alderdiek ez dituzte atzera bota", aipatu du. PSE-EEren aldeko botoek ahalbideratu dute onarpena. EH Bildu, Ahal Du Lasarte-Oria Podemos eta EAJ abstenitu egin dira eta PPK aurka bozkatu du.

Jesus Zaballos alkateak nabarmendu du: "Azken urteetan bezala Espainiako Aurrezki Kutxen Fundazioak, Funcasek

proposatutakoarekin bat egiten dugu, KPIa igo". Era honetara, orokorrean 2018 urteko tasak %1,20 igo dira. Salbuespenak zabor tasa, higiezinaren gainbalioa eta kiroldegiko abonuen tasa dira.

Zabor tasak %5 igo dira 2018an. "San Markos Mankomunitatearen erabakiaren ondorio da igoera hori. Atez ateko sistema duten herriek helegitea jarri zuten behar ez zuten zerbitzu bat ordaintzen zutelako. Epaitegiek arrazoi

eman eta zerbitzu horren kostea beste herriei gehitu digu San Markosek. Hori horrela izanik eta udalak zaborren gastuen estaldura maila mantendu nahi duenez, tasa igo da."

Higiezinaren gainbalioa, berriz, %4 igo da. Alkateak azaldutakoaren arabera, Foru Aldundiak gehiengoa %15ekoa du ezarria. "Hainbat herriekin konparatua baxua du Lasarte-Oriak".

Kiroldegiko abonuei dagokionez, Buruntzaldeko Mankomunitateko

Kirol zerbitzuek adostutako tasa ezarriko da. Abonu familiarrak %1,67ko igoera izango du, helduen abonuek %1,20 eta haurrenak %2koa.

Berrikuntzak

Alkatearen hitzetan, 2018 urteko ordenantzetan "berrikuntza txikiak ere" badaude.

Horiek udalbatzarrean onartu diren bi transakzio-emendakin, Gizarte Zerbitzuetan sortuko diren zerbitzu berrien tasak eta tutoretzapeko pisuen egoiliarrentzako edo familia ugarietzako hobarien irizpideetako aldaketak dira.

Alkateak azaldu moduan, Gizarte Zerbitzuetako sailak martxan jarri behar ditu urtarrietik aurrera mendekotasunik ez duten pertsona adinduentzako jangela zerbitzua eta jarduerak dituen eguneko zentroa Biyak Bat elkartearen eta horien tasak zehaztu dira.

Bestetik, tutoretzapeko pisuetan bizi diren pertsona adinduek gutxienez sei hilabetez egon beharko dute erroldatuak hobariak jasotzeko.

Familia ugarien kasuan, "Hirukide Familia ugarien elkartearekin bildu ostean, irizpideei mugak aldatzea erabakitzeko". Honela familia ugariak higiezinaren tasako hobariak jasoko dituzte etxearren balio katastrala 182.000 euro baino gutxiagokoa bada eta ibilgailuen gaineko zergan, zaldi potentzia fiskala 15,99a baino gutxiagokoa bada.

Alderdiei erantzuna

Alkateak udalbatzarrean erantzun die beste alderdiek ordenantzen lanketa ezari buruz egindako aipamenei.

Zaballosek onartu du lanketa mahairik ez dela egon eta epe labur batean guztia egin dela. "Abenduaren 31rako ordenantzak onartuak egon behar dute, beraz, egutegiaren arabera egin dugu lan. Zortzi egun bakarrik izan dituzte alderdiek ordenantzak aztertu eta haien emendakinak egiteko. Orain behin-behineko onartu ditugu. GAOn argitaratu eta hilabetez alegazioak egiteko aukera izango da. Alegaziorik egon ezean, behin betikoz onartuko dira. Baina alegaziorik badago, beste hamabost egun beharko dira".

Hala ere, aurrelanketarik ez egitea egotzi die beste alderdiei eta hurrengo urterako ordenantzetan lanean hasteko gomendioa egin die, "KPIa berriro ere igotzea izango da gure proposamena".

Honez gain, PPren, EAJren eta EH Bilduren ordenantza fiskalei buruzko jarrera gaitzetsi du.

"PPko zinegotzia ez da batzordeetara agertu eta emendakin partziala egin du. Bere azalpenean krisia eta langabezia tasa aipatzen ditu tasak izozteko argudio bezala, bere alderdia gobernuan egonda larria iruditzen zait hori aipatzea, izan ere, egoera hobera doala dio gobernua", adierazi du.

Bestetik EAJ eta EH Bilduren koherentzia falta salatu du. "Haiek gobernuan zeudenean tasak KPIren arabera edo higiezinaren gainbalioa %4 igo zuten eta orain izoztea edo KPIa bakarrik ezartzea eskatzen dute".

EH Bildu alderdiari gainera, aurreko urteko emendakinak errepikatzea leporatu dio alkateak.

Bi transakzio-emendakin adostu dituzte

Ezohiko udalbatzarrean onatu dira 2018 urteko ordenantza fiskalak. Udalbatzarrean ez dira alkateak azaldutako gaiak jorratu. Ogasun Batzordean landu eta bertan onartu ez ziren emendakinak izan dira aztergai, baita EH Bildu eta PPK ordenantzei egindako emendakin partzialak ere.

Bi emendakin partzialen proposamenak entzun, aztertu eta atzera bota ditu udalbatzarrak.

Ostean, EH Bilduren zortzi emendakin, Ahal Du Lasarte-Oria Podemos alderdiaren eta EAJren emendakin bana eta EH Bilduk eta

ADLOP aurkeztutako transakzio-emendakina izan dira mahai gainean. Besteak beste, Aire Garbiak 5. edukiontzia erabiltzaileei hobariak ezartzeko aurkeztutako proposamena, familia ugarietako guraso bananduentzako higiezinaren tasan hobariak edo etxebizitza hutsen tasa igotzea. Azken bi gai hauek izan dira transakzio-emendakin bidez onartu direnak.

Honela, familia ugaria duten guraso bananduek, %50eko hobaria izango dute higiezinaren tasan betiere, haurren zaintza partekatua bada eta haurrek etxebizitza batetik bestera mugitzen badira.

Bestalde, Lasarte-Orian dauden etxebizitza huts kopurua murrizte aldera onartu zen bigarren emendakina. Honen bitartez, Alokabideren Bizigune programan izena eman eta hitzarmena eginez gero, %50ko hobaria izango dute etxebizitzaren jabeek.

Lanketa eza

Honez gain, EAJ orokorrean bat etorri da ordenantza fiskaletan eman den igoerarekin. Baina berrikuntzarik ez egotea aurpegiaratu dio gobernuari, baita lanketa eza ere. "Aurre lanketarik ez da egon eta atzerapausoa iruditzen zaigu hori," adierazi du Estitxu Alkorta EAJko zinegotziak.

Hainbat tasatan lanketa sakonagoa egin beharko litzakeela ere azpimarratu du. "Zenbait tasak lanketa propioa behar dutela uste dugu, hala nola, zaborren edo uraren tasak. Saiakerak egin dira tasa horiei irizpide egokiagoak ezartzeko. Berrikuspen sakonagoa behar dute,"

ADLOP alderdiak ere ordenantzak aztertze epea motzari buruzko kritika egin eta eskaera bat egin du mintzaldi txanda batean: "Zortzi egun besterik ez ditugu izan 2018ko ordenantzak aztertze epea. Hurrengo urtera begira, iaz bezala ordenantza fiskalak lantzeko mahaiak martxan jartzea eskertuko genuke".

Parkeen mantentze lanak eta autobusak, batzarrera

Asteartean udalbatza batuko da herriko gaiet buruz eztabaidatzeko. Gai-zerrendan EH Bilduk eta EAJk egindako eskaerak aztertuko dituzte: autobus zerbitzuaren murrizketak, Katalunia eta haur parkeen eta kirol guneen mantentze lanak

Txintxarri

Foru Aldundiak autobus zerbitzuetako kontzesioa berritzeko aurreproiektua argitaratu zuenetik, bolo-bolo dabil jendartean gaia. Txosten horretan planteatzen diren zerbitzuen murrizketek kezka sortu dute, eta Lasarte-Oriako EH Bilduk mozioa aurkeztuko du datorren astearteko udalbatzarrean.

Pablo Barrio eta Kristina Bernal alderdikideek aurreproiektua bertan behera uzteko eskatu dute. "Aldizkari ofizialean argitaratu zenean izan genuen aurreproiektuaren berri, ez zuten eragileekin elkarlanik egin, eta, gure ustez, hori beharrezkoa da", azaldu du Barriok.

Horrekin batera, bigarren mozio bat ere aurkeztuko dute; horretan, Kataluniako Errepublikak Independentea aitortzeko eskatuko diote udal taldeari.

Mantenua

Jon Antxordoki EAJko zinegotziak, berriz, haur parke eta kirol guneen mantenua hobetzeko eskaera azaldu du asteazkenean egindako agerraldian.

"2011-2015 legealdian, alderdi sozialistak oposizioan behin eta berriz galdetzen zuten parkeen mantentze lanei buruz. Gaur, 2017ko azaroan, gero eta kexa gehiago jasotzen ari gara". Antxordokiren



EH Bilduko zinegotziak Biyak Bat egoitza aurreko autobus geltokian. TXINTXARRI



Jon Antxordoki EAJko zinegotzia Askatasunaren parkean. TXINTXARRI

hitzetan, Uzturre plazan ezarriko diren kirol anitzeko pista eta 3. adinekoentzako kirola egiteko makinak kontuan izanik, "gutxienez, hogeitau haur parke zein kirol gune" dira udal brigadak mantendu behar dituenak Lasarte-Orian.

Udal brigadak duen lan kargaz jakitun, EAJk eskatuko du gune horien mapa egitea, eta 2018ko udal aurrekontuetan mantenuari aurre egiteko kanpo zerbitzua kontratatzeke diru partida aurreikustea.

GHK-ko kide ohiei babes

Erraustegiaren proiektua geldiarazi zutelako, bide judizialek jo du GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsultorioak Ainhoa Intxaurrendietaren eta Iñaki Erazkinen aurka. GHK-ko buruzagi ohia dira horiek. Lasarte-Orian bildu dira eskualdeko EH Bilduko ordezkariak, Errazkini eta Intxaurrendietari babes helarazi, eta PSEren eta EAJren "mendeku gosea" salatzeke.



TXINTXARRI

NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Kros paraleloa

Hamabi alditan herriko krosetan korrika aritzeko aukera izan dut, gozatzeko aukera, barrutik bizitzeko. Aurtengoan ezin izan dut parte hartu, eta ibilbidetik kanpo egon izanak lasterketa honek sortzen dituen hainbat egoera desberdinen inguruan hausnarketaxoa egiteko aukera eman dit.

Herri mailan tradizio handiko ekitaldia bihurtu da krosa. Korrika egiten ez duten pertsonen presentziak eta parte hartzeko beste modu horrek bizitasuna eta giroa ematen dio lasterketari. Lehen urteetatik izan da Lasarte Oriako krosaren ezaugarri nagusienetakoa ikuslea eta egun honetan herrian sortzen den "kros paraleloa". Horretaz konturatu naiz aurtengoan kanpotik bizita. Herri ohituratzat hartu da jada egun hau herritar askorentzat. Egundak honetan lagunekin eta familiarekin elkartzeko aukera izaten dute askok. Poteoak, hamaiketakoak eta bazkariak etxe askotan egiten dira egun honetan. Herrikanpo bizi garenontzat ere, bertaratzeko aitzakia ederra izaten da egun hau. Honek guztiak giro berezia sortzen du herrian, eta duela urte asko Ostadarrek herrian kirola bultzatzeko sortu zuten lasterketak, gaur egun Lasarteko egun seinalatu bihurtzea lortu du. Kirolari zein kirolari ez direnentzat egutegian gorritz borobiltzen diren horietakoa. Azken urteotan, etxeko txikienek ere parte hartzeko aukera bikaina izaten dute. Beraz, lagunartean edota familian egun polita igarotzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu herri krosak.

Herrigintza eredu garbia da Lasarte Oriako krosa. Kirola bultzatuz, arlo soziala landuz eta herriaren ohitura nahiz tradizioak sustraituz herrikanpo herriarentzako sorturiko proba, elkargune bihurtu den kirol froga herrikoia. Kirol ohiturek, askotan ohitura sozial eta kulturei bide ematen diotenaren eredu garbia.

Espainiako Gorenak Hermanos Paino enpresa zigortu du

Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi du Hermanos Paino SL enpresak langileen oinarrizko eskubideak urratu dituela. 2016. urteko abenduan hauteskunde sindikalak egin zituen enpresak, eta horien emaitzak aldatzen saiatu zela salatzen zuten langileek.

Hauteskunde horietan langile bati bozka ezin zuela eman jakinarazi zion zuzendaritza batzordeak (bozka mahaiari ere jakinarazi zioten hori).

Zuzendaritzak, ordea, beste hautagai zerrenda bat aurkeztu zuen, senitarteko bat buru zuena (horiek irabaziz gero, sindikatuaren borroka ezerezean geratuko zen). Azkenean, CCOO sindikatuko hautagaitza aukeratu zuten langileek.

Donostiako 4. epaitegiak ebatzi zuen enpresaren jarrerak "oinarrizko eskubideak urratu" zituela, eta, ondorioz, 6.000 euroko isuna ordaindu beharko du enpresak. Enpresak helegitea jarri zuen orduan, baina Espainiako Auzitegi Gorenak ebazpen berbera eman du.

Kenia

NOAQA BIDAIAK

IRTEERA OTSAILEAN
Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Izurriteari aurre egin eta zombi ez bihurtzeko jokoa

Zonbien gotorleku bihurtuko da hilaren 18an Lasarte-Oria. 'Survival Zombie' ekitaldia antolatu du udalak, gazteei "aisialdi alternatiboa" eskaintzeko helburuarekin, eta dagoeneko 500 pertsonak izena eman badute ere, 1.000 parte hartzaile espero dira

Txintxarri

Odolez beteriko aurpegi eta puskatutako jantziak soinean, zombiz beteko da Lasarte-Oria azaroaren 18an. EAEn lehenengoz, *Survival Zombie* rol jokoa egingo dute.

Horrela azaldu dute Jesus Zaballos alkateak, Txus Alonso zinegotziak, eta antolatzaileek prentsaurreko baten bitartez. Bertan azaldutakoaren arabera, gazteei "aisialdirako alternatibak" emateko helburua du ekimenak.

Jokoan zehar parte hartzaile ezberdinak egongo dira: zombiak eta bizirik aterako diren pertsonak. Lehenak, mozorrotuta egongo dira, eta lepoko hori baten bitartez identifikatu ahal izango dituzte gainerako parte hartzaileek. Horiek topatzen duten edonor kutsatu, eta zombi bihurtzen saiatuko dira.

Zombiak ez direnek, berriz, lepoko berdea eramango dute, eta ihesean arituko dira uneoro. Jokuan zehar zenbait proba gainditu beharko dituzte, amaieran zombiek Lasarte-Oria zergatik kutsatu duten jakin ahal izateko. Baina zeregina ez da arrisku gabea: zombiak aurkituko dituzte bidean, eta horien kutsadura ekiditea lortu beharko dute.



Gisa honetako zombiek parte hartuko dute *Survival Zombie* jokoa. TXINTXARRI

Behin kutsatu direnean, txertoak (jokoa hasi aurretik erosi ahal izango dira) erabili ahal izango dituzte sendatu, eta zombiengandik ihes egiteko. Hori bai, behin txertoak agortuta, zombiek kutsatutako parte hartzaileak zombi bihurtuko dira, eta gainerakoek bila joan beharko dira zombi gisa.

Jokoaren amaieran zombien atzaparretatik ihes egitea lortu dutenak izango dira irabazleak.

Gaueko 23:00etan hasiko da jokoa Michelingo frontoian, eta goizeko 06:00ak bitarte, infekzioa zabaldu eta parte hartzaileak kutsatu eta zombi bihurtzeko ahaleginetan arituko dira zombiak. Behin jokoa amaituta, irabazleak ezagutuko dira.

Hasiera, Michelingo frontoian
Dagoeneko 476 pertsonak eman dute izena, eta egunerako 1.000 parte hartzaile espero dituzte. Antolatzaileek jakitera eman



Zombiengandik ihes egin beharko dute parte hartzaileek kutsadura ekiditeko. TXINTXARRI



Iragan ostegunean egin zuten *Survival Zombie* rol jokoa aurkezpena. TXINTXARRI

dutenez, Bilbo eta Gasteizetik autobusak antolatu dituzte Lasarte-Oriara etortzeko.

Sarreraren salmenta

Hoge euro ordaindu beharko dituzte parte hartzaile arruntek, baina Lasarte-Oria erroldatutako 15-30 urte bitartekoek bost eurotako deskontua izango dute (ekitaldiaren egunean, NAN-a aurkeztu beharko dute errolda egiaztatzeko). Antolatzaileek

ituraldatutako eta makilatutako zombiek, aldiz, hamar eta hamabost euro ordaindu beharko dituzte.

Prezioak garestitu egingo dira eguna gerturatu ahala. Izen emateak egiteko <http://survivalzombie.es/eventos/lasarte-oria> ataria erabil daiteke. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, adin txikikoek tutoreen baimena aurkeztu beharko dute zombien jokora jokatu ahal izateko.

Garaiko produktuak, herritarrengandik gertu

Bosgarren Baserriko Azokak hartuko du larunbatean Okendo plaza, eta udazkenean murgilduta gauden garai honetan, sasoioko produktuak dastatu eta erosteko aukera izango dute bezeroek.

Horrela, barazkiak, esnekiak, gozoak eta beste hainbat produktu erosteko aukera izango da.

Ainhua Amundarain Behemendi landa garapenerako agentziako ordezkariak azaldu moduan, zortzi edo bederatzita postu izango dira aurtengo azokan, tartean Lasarte-Oriako Telleri baserrikoa.

10:00etan zabalduko ditu atek azokak, eta 14:00ak bitarte iraungo du.



TXINTXARRI

Txistuak, danbolinak eta organoak bat egingo dute gaurko kontzertuan

XIII. Musika Topaketa antolatu du Danok Kide Guraso Elkarteak, eta txistu, danbolin eta organo emanaldiaz gozatzeko aukera izango da gaur, Brigitarren Komentuan.

Jose Ignacio Ansorena txistu jotzailea, eta Ana Belen Garcia organo jotzailea arduratuko dira ikus-entzuleen iluntzeari doinu

emateaz; 19:30ean izango da hitzordua.

Zortzi pieza eskainiko dituzte musikariek. *Sonata en Re-k* irekiko du kontzertua, eta horren ostean, melodia ezberdinak joko dituzte; tartean, Eusebio Basurko kompositorearen *Kontradantza*, Jesus Guridiren *Mendiko soinuak*, eta Jose Juan Santestebanen *Bailes tradicionales vascongados*. Emanaldiari amaiera emateko, Naji Hakim Libanoko musikariaren *Diptyque* joko dute.



Luken panderoa jotzen, oholta gainean, Kepa Junkerarekin batera. TXINTXARRI

Hiru akordeoi estilo, eta hamaika emozio

Bandoneoia, trikitixa eta akordeoia. Musika egiteko hiru estilo. Hiru instrumentu horiek izan dira XIV. Akordeoi Jaialdiko protagonistak. Enrique Telleriak, Kepa Junkerak eta Sorginek eta Alain Musichini & Jazz Quartet taldeak jarri dituzte hauspoak martxan

Iñigo Gonzalez

Hiru artista gonbidatuek *Hegoak ebaki banizkio* kanta mitikoarekin itxi zuten joan den larunbatean Akordeoi Jaialdia, Zero Sette taldeak antolatutako hamalagarrena. Amaiera biribila, ederra. Abestiaren titularrarekin jolastuz, larunbatean argi geratu zen musikari ezin zaizkiola hegoak ebaki. Unibertsala da, munduko toki eta leku guztiena, zaindu eta etengabe berri beharreko ondarea. Altxor kutzak dira notak, abestiak, partiturak... musika. Herriko kultur etxean larunbatean ireki zuten bat, hainbat artistaren artean: Enrique Telleria, Kepa Junkera eta Sorginak (eta Luken) eta Alain Musichini & Jazz Quartet.

Musikak hegoak ditu, eta hegan egiten du. Mundu honetatik kanpora iristeko adina indar badu. Xabier Gonzalez Ubegunek (Zero Setteko lehendakari ohiak, aurre zendu denak), dagoen tokian dagoela, gustura entzun zuen emanaldia. Harekin ere gogoratu ziren kide ohiak, musikariak, eta kultur etxeko ikusle guztiak. Gonzalezen ahaide gertukoak oholta gainera igo, eta lore sorta bana jaso zuten. Hiru gonbidatuek ere oroigarri bana jaso zuten:

olatu formako eskultura bat, akordeoia irudikatzen duena.

Bi ordu eta erdi iraun zituen emanaldiak, baina denbora ziztu bizian igaro zen doinu tartean. Emanaldia bukatu zenean, erlojua begiratu, eta 21:30ak pasatxo ziren. Batek baino gehiagok jarri zuen harridura aurpegia: denbora azkar pasa da oso, ia konturatu gabe.

Denbora, konturatu gabe

Eta ia konturatu gabe sakatzen ditu bandoneoiaren botoiak Enrique Telleria uruguaitarrak. Magia egiten du instrumentu horrekin. Kultur etxeko ikusleen begi eta belarriak sorgindu zituen, hainbat doinu ekarriz oholtzara. Tartean, tangoak edota Ennio Morriconeren *Cinema Paradiso* piezaren zati bat.

Sormena eta tradizioa pertza barrura bota, eta sorginkeria eta edabe ikusgarriak sortu zituzten Kepa Junkera eta Sorginak taldeak. *Maletak* izeneko azken lana aurkeztu dute Lasarte-Orian, eta beste hainbat pieza jo ere bai.

Etenalditxo bat aprobetxatu, eta ikusleen artean begira hasi zen Kepa Junkera. Begiztatu du gaztetxo bat, eta galdetu dio instrumenturen bat jotzen ote

duen. Baietz: flauta. Ariketa bera egin du segundo batzuk geroago. Luken izeneko mutiko bati galdera bera egin dio, baina desberdina zen musika instrumentua. Panderoa. Junkerak oholtzara igotzera gonbidatu du gaztetxoak. Elkar aurkeztu, eta anekdota horretan geratuko zela zirudienean, pandero bat eman eta jotzeko eskatu dio Lukeni. Adin txikikoa izan arren, oso trebea dela erakutsi du Lukenek, eta elkarrekin inprobisatu dute Junkerak eta berak. "Garaiotan are beharrezkoagoa da kultura: musika gehiago egin behar dugu", adierazi du artista bilbotarrak. Beharbada gaur jaio da proiektu berri bat: Kepa Junkera eta Sorginak... eta Luken.

Alain Musichini & Jazz Quartet taldea izan zen oholtzara igotzen azkena. Jazz doinuak oholtzaratu zituzten. Hemeretzi urterekin Munduko Akordeoi txapelketa irabazi zuen Musichinik, eta argi geratu da zergatik. Kosta egiten zen begiekin haren hatzen erritmoa jarraitzea. Frantsesez hitz egin zuen artistak, eta askok esaten zuena ulertu ez bazuten ere, egin zuen musika berdin-berdin iritsi zitzaizen, lengoia unibertsala baita musika. Ondarea. Altxorra.

26 ordu euskaraz kantari arituko dira Zaldibian

Kantuak ez du etenik izango ostiral eta larunbatean, Zaldibian. Denak hala denak, euskaraz arituko dira, noski, hori baita helburua, euskarazko kantuak abestea 26 orduz jarraian.

Horrela, ostiralean 17:00etan Zaldibiko plazatik kalejira abiatuko da. Txistulariek lagunduta, Herri Antzokira iritsi, eta bertan emango zaio hasiera *Izan Kantuz* erronkari.

Jarraian, Porrotxen bisita jasoko dute, eta berarekin batera kantuan aritzeko aukera izango da. Pailazoaz gain, Euskal

Herriko hainbat musika taldeetako musikariak igoko dira oholtzara. Horien artean izango dira Maider Zabalegi, Zuriñe Hidalgo, eta Xabier Saldias, besteak beste.

Kantu jira taldeek ere parte hartuko dute, eta nola ez, Lasarte-Oriako Xumela koroa Zaldibiako kaleak girotzen arituko dira.

Horrenbeste ordu kantuan pasa, eta galdutako indarrak berreskuratzeko aukera ere izango da. Ostiraletik larunbaterako gauetan, esaterako, sukaldea eta taberna irekita egongo dira, eta larunbatean herri bazkaria egingo dute. Larunbatean, 20:00etan egingo da amaiera ekitaldia.

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko otarrak

Asteartea izango da Errigorako otarrak eskatzeko azken eguna. Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza sustatzeko baliatuko da horien salmentatik lortutako diruaren zati bat.

Oraingoan ere, hainbat produktuz betetako bi otar egongo dira bezeroen aukeran: zuria eta beltza.

Lehenengoan zainzuriak, orburuak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, pasta, arroza, teilak, patxaran pastak,

molineritoak, tomatea olioarekin eta pikillo piper mamia dago.

Beltzak, berriz, honako produktu hauek ditu: zainzuriak, orburuak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, potxak, kardua, almendrak, pikillo saltsa, mahats zukua, aran mermelada eta oliba olio birjina. Saski bakoitzaren prezioa 50 eurokoa da.

Otarrak erosi nahi dituenak, Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4) gerturatu beharko du, bertan izen-emate orria bete dezan. Hortaz gain, www.errigora.eus atarian ere egin ahal izango da, azaroaren 14a baino lehen.



TXINTXARRI

Zinema asteburu 'Handia'

'Handia' pelikula gogor jo du Lasarte-Orian, eta ostiraleko zein igandeko saioetan lepo egon da Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioa. Okendo Zinema taldeak gonbidatuta, Jon Garaño zuzendariak eta Iñigo Aranburu eta Jagoba Mendizabal aktoreek ikusleekin solastu zuten.

Ziztu bizian, eta burrunbaz

Loquillo Riders-en
urteurren ospakizuna,
iruditlan



Urteurren festara gerturatu ziren gaztetxoek puzgarrietan ibiltzeko aukera izan zuten. TXINTXARRI



Sasoeta auzoko 2KN kafetegi paretik eman zioten hasiera ibilbideari motorzaleek. TXINTXARRI



Etxeke gazteak Okendo plaza atzekaldean jarritako puzgarrietan jolasean. TXINTXARRI



Behin ibilbidea amaituta, moto ilara luzea ikus zitekeen Askatasunaren parkean. TXINTXARRI



Loquillo Rider motorzale taldeko kideak pozik lehen urteurreneko ospakizun egunean. TXINTXARRI



Motor ibilbidea Kale Nagusitik igaro zen unea. Moto ilara luzea osatu zuten errepideetan barrena. TXINTXARRI



Hainbat motorzale, herritik barrena ibilbidea egin ostean, Okendora iritsi ziren unean. TXINTXARRI



Okendora gerturatu zirenek kamisetak erosteko aukera ere izan zuten, bertan motorzaleek jarritako postuan. TXINTXARRI

Motorren burrunbek esnatu zuten larunbatean Lasarte-Oria. 2016an irten zen tailerretik Loquillo Riders motorzale elkarteak; badarama urtebete errepideetan, eta urtemuga ospatze aldera, egun osoko egitarauaz gozatu zuten Okendo plazan eta inguruetan. Zitzu bizian igaro da larunbata, baina festara batu direnei gasolina ugari geratzen zaie gorputzetan oraindik.

Goizeko bederatiak, puntu-puntu. 2KN kafetegian izena emateko ordua. Kafesneak, croissant goxoak, eta... motorzaleak. Baten bat hasieran, batzuk gero, eta asko azkenean. 165 apuntatu dira, eta are pertsona gehiago animatu dira ibilaldia egitera, euren kontura. 11:00etan geratuta zeuden Andoain aldera joateko, baina ordu erdi lehenago motorrez josia dago Jaizkibel plaza ondoko aparkalekua. Ospakizun eguna izaki, motorzaleek ez dute segundo bakar bat galdu nahi izan, eta berehala murgildu dira festa-giroan.

Esan bezala, goizeko hamaiketan hasi dira orroka berriro motorrak. Kilometro-kontagailua martxan jarri, kaskoak ongi lotu eta errepidera atera dira motorzaleak. Andoainera joan dira, eta pare bat orduko ibilbidea egin ostean, herrira itzuli dira berriro. Buelta bat eman dute, eta Mendi Kafe Rock tabernan poteatu. Talde argazkia ere atera dute bertan, giro ederrean. Okendo plazan bazkaldu, eta euren depositoak gasolinaz bete dituzte, arratsaldeko eta gaueko ekitaldiei aurre egiteko. Bien bitartean, gaztetxoek ederki pasa dute puzgarrietan saltoka. Horiei ez zaie depositoa inoiz husten.



Loquillo Ridersen urteurrena izanik, taldearen zenbait bandera eta irudi ikusi ahal izan ziren. TXINTXARRI

"Nik transmititu nion euskararekiko maitasuna alabari, eta orain biloba da nire euskara irakasle onena"

MARIA ANGELES IBARGUREN EUSKARA IKASLEA

Itsasondon jaio eta Andoainen bizi zen Maria Angeles Iburguren, baita euskaraz bizi ere. Baina oso gazterik joan zen Argentinara, Necocheara, eta euskaraz egiteko ohitura galdu zuen; ez ordea hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna, alabari transmititu ziona. Orain, alabarekin bizitzera etorri da Hernanira, eta euskara berreskuratzen ari da. Alabak berak, eta bilobak bereziki, laguntzen diote horretan

Argentinarra dauka azentua, Maria Angeles Iburgurenek. Baina euskal herritarra da, Itsasondoko jaiotzez, eta Andoainen bizi izandakoa. Ia euskara hutsean egiten zuen txikitan, eta euskara ikasten ari da orain; berreskuratzen, hobe esanda. Necochean igarotako 60 urteetan galdutako ohiturari, berriro heltzen.

Oso gazte zela, zortzi urterekin, joan zen Iburguren Argentinara, gurasoekin eta anai-arrebekin, Frankismotik ihesi: "errepublikazalea zen aita, eta pertsegitu egin zuten. 1952an egin zuen berak ihes Necocheara. Lurrak erosi, etxea egin, eta hurrengo urtean joan ginen gu", dio Iburgurenek.

"Necochean euskaldun asko zeuden, baina egunerokoan ez ginen euskaraz bizi"

Gogoan dauka nola, beraiek bizi ziren nekazal ingurunean, bizilagun asko ziren euskaldunak: "Necochean euskaldun asko zeuden, eta Euskal Etxea oso handia da han; euskara ikastaro batzuk ere ematen zituzten. Baina egunerokoan, ezin genuen euskaraz bizi, eta galdu egin nuen pixkanaka".

Ez, ordea, euskararekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna: "nik eta ahizpak, beti jotzen genuen Euskal Etxera, eta euskara ikastaroak ere egin genituen. Nire alaba bertan hasi zen euskara ikasten, pixka bat. Ez ginen euskaraz bizi, baina bai euskal giroan. Euskarak interes handia pizten du Necochean, eta familiarik haratago joatea lortzen du euskararen transmisioak, han".

Maria Angelesekin transmititu zion maitasun hori alabari, eta askotan egin zuten bidaia Euskal Herrira, elkarrekin.

Baina bidaietako bat, denboran luzeena, bakarrrik egin zuen alabak: Bilbora joan zen, ikastera. "Hainbatetan Euskal Herrira etorri ondoren, esan zidan: 'ama, hau da nire tokia munduan'", gogoratzen du Maria Angeles Iburgurenek.

Bilbon ikasi ondoren, Andoainera etorri zen bizitzera, eta Hernanira ezkondu zen azkenik. Duela lau urte etorri zen bera, alabaren pausoei segika, Necocheako ospitalean emagin izan ondoren, 37 urtez.

"Garbi neukan, bueltatu nintzanean, euskara berreskuratu nahi nuela"

Bueltatuko zela bai, bazekien Iburgurenek: «baina beti pentsatu nuen Legazpira edo bueltatuko nintzela, familia bertakoa zelako. Baina Hernanin oso ondo hartu naute, jende oso irekia da. Eta kultur aberastasun handiko herria da».

Baina are garbiago zeukan, bueltatzean euskara berreskuratu nahi zuela: "beti diot, ez nintzela inoiz joan. Txikitan neukan hori guztia, euskara, nonbait egongo dela, eta berriro ateratu behar dudala. Oso polita da pixkanaka euskara berreskuratuz joatea".

Horretarako ere, alabaren pausoei jarraitu die. Bilbon aritu zen alaba euskara ikasten, eta AEKn jarraituz, Buruntzaldeara etorri zenean: "bigarren maila dauka, eta nik ezin dut esan, baina diote oso ondo hitz egiten duela. Orain, mintzapraktikan ari da bera, eta ni naiz euskaltegia hasi dena".

Urtebete darama Iburgurenek AEKn, "barruan nonbait" daukan hori ateratzen: "adinekoentzat oinarritzko ikastaro bat egin nuen aurrena, bilobekin euskaraz egitera bideratua zegoena". Eta berak ere,



Maria Angeles Iburguren, AEKren lokalaren ondoan; bertan ari da, hainbeste maite duen euskara berreskuratzen. KRONIKA

"Euskal Herrira bueltatzea eta euskara berreskuratzea, zirkulua osatzea bezala izan da niretzat, nire jatorrietara bueltatzea. Eta hori oso polita da"

hein batean, nahi zuen hori: Udane bilobarekin euskaraz egin.

"Berak oso ondo egiten du euskaraz. Hiru urte besterik ez dauzka, baina oso azkar eta ondo egiten du. Eta badaki nik ere nahi dudala euskaraz hitz egin. Gustatzen zaio, amonak euskaraz egitea", dio Iburgurenek irribarretsuz: "bera da nire irakasle onena. Zuzendu egiten dit, eta gaztelaniaz hasten naizenean, ez dituzten, 'horrela ez' esaten dit".

Bilobarekin euskaraz egiteko, eta euskaraz bizitzeko, astean hiru egunez joaten da AEKra: "egunero ematen ditut aurrerapausoak, eta orain, nabaritzen dut ulertu egiten diedala senide eta lagunei, eta nik ere hitz egin dezakedala". Horretara animatzen dute AEKko irakasleek,

eta baita herritarrek ere. Eta oso lagungarria zaio, alabaren familia osoa euskalduna izatea: "giro euskalduna daukate familian, euskaraz egiten dute, eta euskal kulturaren oso errotuta daude". Eta euskaraz bizi nahi du berak ere.

"Batuetan, niregatik, gaztelaniara pasatzeko joera izaten dute; baina eskatzen diet euskaraz jarraitzeko", dio. Sentipen bereziak sorrarazten dizkiolako horrek: "zirkulua osatzea bezala izan da, nire jatorrietara bueltatzea. Eta hori oso polita da".

"Necochean 'la vasquita' nintzen, eta hemen, berriz, 'argentinarra' naiz"

Izan ere, euskara "bizitzeko modu bat" da Iburgurenentzat: "lurrarekin, jendearrekin lotuta

dago. Ikusten ditudanean herrien sarreretan 'Euskaraz bizi gara' dioten kartelak, poza ematen dit. Horrek egiten du herri hau ezberdin, eta horregatik bueltatu naiz Euskal Herrira; herri hau, jende hau eta hizkuntza hau berriro deskubritzera".

Euskara ere berreskuratzen ari baita, baina azentu argentinarra galdu gabe oraingoz: "bilobak ere, gaztelaniaz hitz egiten duenean, azentu argentinarra dauka. Grazioso da. Hori nik transmititu diot. Joan eta etorriko bidea da hizkuntzarena, gure artean".

"Argentinan, Necochean, la vasquita nintzen bertakoentzat; errespetu handia diete han euskaldunei, pertsona langilea eta adeitsuaren irudia daukate. Eta hemen, berriz, argentinarra naiz. Kurioso da. Ni sentitzen naiz hernaniarra, euskalduna eta argentinarra. Ez delako ahaztu behar, toki bakoitzean jaso dugun guztia", nabarmendu du.

EUSKARA HANKAZ GORA



EUSKARA BURUZ GORA



ETXEA DU GILTZA!



Ostadar Inklusioa: kirolaz gaindikiko irakaspena

Bigarren denboraldia hasi du Ostadar Inklusioak. Hamar gaztexok astero entrenatzen dute Lasarte-Oriako kiroldegian. Kirolaz gozatzeko aukera eskaintzen du taldeak, baina ariketa fisikoaz harago doa proiektua: haurren autonomia lantzea du xede

Adrian Garcia

Entrenamendua hasi baino hamabost minutu lehenago hasten da lanean Jurgi Olasagasti. Ostadar Inklusioa taldeko entrenatzailea da, Amaia Cadarsorekin batera. Haurrak entrenatzera etorri aurretik aulkia prestatzen ditu, babesleen afixak ongi ipintzen (Michelin eta IK4 enpresen babesik gabe ezingo lituzkete aulki gurpildunak erosi), gurpilen presioa egiaztatzen... "Gure helburua ere bada pixkanaka haurrak aulkien mantenuaz arduratu daitezen, haien artean laguntzeko". Urritasunen bat duten hamar gaztexok asteazkenero entrenatzen dute Maialen Chourraut kiroldegian. Bat ez beste guztiak dira kanpotik etorriak: Ataundik, Irundik, Errenteriatik... "Horrelako baldintzetan dauden pertsonak ez dira asko, eta herri bakar batean are gutxiago. Zaila da horrelako taldeak sortzea beste



Ostadarreko taldekideak, asteazkeneko entrenamenduan. TXINTXARRI

herrietan", azaldu du Olasagastik. Hain zuzen, horixe da Ostadar Inklusioaren helburua: kirola egiteko aukera ematea edozein haurrei.

Olasagastiri zer pentsatu ematen dio kirolarrietan ikusten

duen jarrera. "Oso aberasgarria da. Urrutitik etortzen dira, kirola egiteko beste aukerarik ez dutelako, besteen eskubide berberak ez dituztelako. Eta halere, normaltasunez eramaten dute aurrera haien bizitza".

Gogotsu joaten dira gaztexoak entrenatzera. Giro ona dute taldean, txantxak eta barreak dira nagusi. 9 eta 17 urte bitartekoak dira denak, baina adin mugarik ez dute. Hain justu, ez dute inongo mugarik: urritasunik ez dutenak ere entrenatzen dute eta. *Inklusioa* baita hitz gakoa.

Beroketa batekin hasten dute entrenamendua. Entrenatzaileek ez dute beroketa gidatzen, saio bakoitzean taldekide batek egiten du. "Oso garrantzitsua da ohitura batzuk hartzea. Haien artean lagundu behar dira materiala ateratzeko, aulkietan esertzeko...", dio Olasagastik.

Eskola kiroleko filosofia

Eskola kiroleko filosofia dute entrenamenduek. Jokoen eta ariketen bidez lantzen dituzte haurren gaitasun fisikoak. "Hastapen bat da. Ondoren bideratzen ditugu kirolekara. Normalean saskibaloira, topaketetan parte hartzeko aukera gehien dituelako. Baina eskubaloia, errugbia, eslamon eta badmintona ere ikusi ditugu".

Abiadura eta aulkiarekin trebezia landu dute asteazkeneko saioan: harrapaketatara jolastu dira, eta ondoren kono batzuekin marraztutako zirkuitu bat egin dute taldeka, ahalik eta azkarren. Lehia sanoa dago giroan.

Kalean edonon topatu ditzakete oztoko arkitektonikoak, baina Maialen Chourraut kiroldegian

"gustura" daude. Korridore bat utzi diete aulkia gordetzeko, aldagela egokitu bat dute, eta igogailua erabiltzen dute.

Autonomia lantzen

Bigarren denboraldia du Ostadar Inklusioak, eta ongi finkatuta dituzte helburuak. Batetik, kirol diziplina desberdinak ezagutarazi nahi dituzte. Bestetik, txapelketetan parte hartu, "lehiaketaren esperientzia ezagutzeko". Esaterako, Ander Altunak hirugarren egin zuen *handbike*-arekin (eskuko bizikletarekin) joan den asteburuan. "Bi kilometro egin nituen bigarrenaren atzetik, baina gero ihes egin zidaten", dio Altunak.

Edonola ere, helburu garrantzitsuena kirolaz gaindikoa da: "Haien autonomia landu nahi dugu. Herritik atera, eta asteburu bat kanpoan nola igarotzen duten esperimintatu, kirol ekitaldi bat aitzakiatzat hartuta". Izan ere, askotan ezin dute ikastetxeetatik antolatzen dituzten txangotara joan, egokituak ez daudelako. "Horrelakoetan autonomia eta elkarbizitza lantzen dira, baina haiek ez dute aukerarik".

Ez da Ostadarreko taldekideen kasua, baina batzuetan gaztexoak zailtasunak izaten dituzte sozializatzeke. Kirolak horretan laguntzen die, beste edonori bezala: "Taldea nortasun bat sortzen da: ni Ostadarrekoa naiz".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL PREFERENTEA
Urnieta KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Urnietan.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Aretxabaleta Larunbata. 17:15. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Martutene KE - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Martutenen.
KADETEEN LEHENENGO MAILA
Antiguo Luberi KE - Ostadar SKT Igandea. 10:40. Berion, Donostian.
EMAKUMEZKOEN INFANTIL MAILA, F-8
Ostadar SKT - Goierrri FK Larunbata. 10:30. Michelinen.
IBERDROLA LIGA
Reala - Rayo Vallecano Igandea. 12:00. Zubietan.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA
Añorga KKE - Pradejon CD Larunbata. 18:00. Añorgan.
EMAKUMEZKOEN 2. MAILA
Logroño - Athletic Igandea. 12:00. Logroñon.
ARETO FUTBOLA
ESTATUKO HIRUGARREN MAILA
Antonio Aroztegia Eguzki - Santurtzi Larunbata. 17:00. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
Jaixki AFT - Ventanas Isu Leihoak-Eguzki Ostirala. 21:40. Lezon.
GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Cecilia Frutadenda Eguzki - Makax CD 25 urte Ostiralean. 20:30. Kiroldegian.
JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA
Goierrri KE - Bar Lasarte Larunbata. 11:00. Urretxun.

KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Balardi Harategia - Erain Igandea. 11:15. Kiroldegian.
SASKIBALOIA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Grupo Eme Oiarso SKT - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Errenterian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea Ostiralean. 20:30. Kiroldegian.
ERRENDIMENDU JUNIORRAK
Ostadar SKT - Hondarribia Larunbata. 11:00. Kiroldegian.
PARTIZIPAZIO JUNIORRAK
Cafes Aitona Askatuak - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Donostian.
ERRENDIMENDU KADETEAK
Trento Hartz Klinika - Ostadar SKT Larunbata. 10:55. Beasain.

PARTIZIPAZIO KADETEAK
Easo 0203 Jesuitak - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. San Igancio de Loyola ikastetxean, Donostian.
INFANTIL HANDIAK
Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut Kiroldegian.
INFANTIL TXIKIAK
Ostadar SKT - Easo 0405 Jesuitak Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
PILOTA
ESKUZ BINAKA 3. MAILA
Gazteleku - Intza KE Ostirala. 19:00. Arrate frontoian, Andoainen.
PROFESIONALAK
Artola eta Larunbe - Artea II eta Albisu Ostirala. 22:00. Ataunen.

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz KE - Bathco Igandea. 12:00. Astin, Zarautzen.
IGERIKETA
ALEBINAK ETA BENJAMINAK
Benjaminen 1. jardunaldia, eta alebinen 2.a. Larunbata. 15:15. Andoainen.
JUDO
JUNIOR SUPERKOPA
Aritz Urdangarin eta Eneko Eizagirre judoek lehiatuko dute. Larunbata. 09:30. Amurrión.
HERRI LASTERKETAK
BEHOBIA-DONOSTIA
Lasarte-Oriatik 191 korrikalarik eta bi patinatzailek eman dute izena. Hogei kilometroko ibilbidea da. Igandea. 09:45etik aurrera, Behobian.

Mailari eutsi dio Intzak, Tolosari 22-13 irabazita

Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak beste urte batez jokatu dute Lehenengo Mailan, promozioko partidari Aurrera-Tolosa garaitu eta gero. Etxeko lanak eginda, denboraldiko gainerako txapelketak "presiorik gabe eta gozatuz" lehiatuko dituzte

Txintxarri

Denboraldi osoa partida bakarrean, etxez kanpo. Irabaziz gero, Lehen Mailan beste urte bezelako txartela. Galduz gero, Bigarren Mailako zuloa. Aurrera-Tolosa eta Intza KE egoera berean aurkeztu ziren joan den larunbateko partidara, biak amildegiaren ertzean. Urduritasunak eragin du bi bikoteen jokoan, eta ez da partida ikusgarria izan. Baina hasiera txarra iraulita, 13-22 gailendu dira lasarteoriatarak. Azken unean bada ere, etxeko lanak bete dituzte Jon Pello Artetxek eta Mikel Elola pilotariak, eta gainerako denboraldia "presiorik gabe eta gozatuz" jokatu ahal dute, bikotearen hitzetan.

Bigarren urtea dute Artetxek eta Elolak Lehenengo Mailan, eta eskarmentu hori baliatuta txukundu ahal izan dute partida. 10-8 galtzen joan dira partidaren lehen zatian, baina burua lasaitu dute gero. Orduan hasi dira huts egiten tolosarrak. Elolak atzean ongi agindu du, eta Artetxek seguru jokatu du, bukaera arte gehiegi arriskatu gabe. Lasarteoriatarak markagailuan urrundu ahala, Tolosako aurrelaria hasi da arriskatzen, baina ez du asmatu min egiten.

Partidaren garrantziaren adierazgarri, Beotibar frontoian



Jon Pello Artetxe, ligaxkako partida batean sakatzen. TXINTXARRI

bete da, baina Intzako pilotariak ez dira bakarrik egon; Lasarte-Oriatik dozena bat zale joan dira herrikideak animatzera.

Txanponaren bi aldeak

Lehenengo Mailako bi urteetan txanponaren bi aldeak ezagutu dituzte Intzako pilotariak. Iaz sailkapeneko lehen postuetan ibili ziren, eta hurrengo mailara igotzeko lehian sartu ziren. Aurten kontrakoa izan da egoera. Elolaren lesio bat tarteko, bi partida bakarrik irabazi dituzte, Tolosan eta Oiartzunen (Astigarragako jokalariek ez ziren aurkeztu).

Bestalde, Intza KEko Hirugarren Mailako taldeak geldiezin

jarraitzen du. Zazpi partidatik zazpi irabazi dituzte, eta ligaxka bukatzeko hiru besterik ez zaizkie falta. Mailaz igotzeko kanporaketa jokatzekoak dira abenduan.

Arteaga II.a, ostiralean

Profesionaletan, berriz, Axier Arteagak ostiralean jokatu du partida garrantzitsua, Albisurenkin batera. Ataungo frontoian jokatu dute Artola-Larunbe bikotearen aurka. Udan geldirik egon behar izan du lasarteoriatarak, lesio baten ondorioz, baina erritmoa hartu du dagoeneko. Igandean Logroñon jokatu zuen, Salaverriekin batera; 17-18 irabazi zioten Dario eta Merino bikoteari.

Ostadarreko seniorrak, garaipenak metatzen

Saskibaloio senior taldeak Astigarraga Mundarro taldea 71 eta 52 garaitu du, eta lehen postuetan da

Txintxarri

Ostadar SKTko senior probintzialak Astigarraga Mundarro taldearen bisita izan du Maialen Chourraut kiroldegian denboraldiko 4. jardunaldian.

Sailkapeneko lehen postuetan da Ostadar eta bi jokalaririk garrantzitsuen falta du, Haizea del Olmo eta Yaiza Navarro; Astigarraga Mundarrok berriz, talde berria du eta beheko postuetan da.

Defentsan akatsak

Ander Otaegik zuzentzen duen taldea erasoan ederki ibili da lehen zatian, baina arazoak izan ditu defentsan. Astigarragako Mundarro huts hauetaz baliatu da puntuak markagailuan

igotzeko eta urdin-beltzek ezin izan dute partida puskatu. Atsedendira 39 eta 30 iritsi dira.

Bigarren zatian, berriz, gogotsu atera dira jokalariek, eta defentsan lan ederra egin dute. 15 puntuko tartea ireki eta Astigarraga Mundarrok ezin izan du etxeko talde geratu. 71 eta 52 amaitu da partida.

Lautik lau

Denboraldi honetan partidarik ez du galdu Ostadarrek. Lau partidatik lau irabazi ditu eta sailkapeneko hirugarren postuan dago 8 punturekin; lehen bi taldeek bederatzina puntu dituzte, baina partida bat gehiago jokatu dute. Aurreko postuetan jarraitzea da helburua.

Hiru puntuak Ventanas ISU Leihoak taldearen poltsikora

Lauburu Aldaz Klinika 7 eta 4 garaitu du. Nazionaleko Antonio Aroztegia taldeak ere garaipena erdietsi du

Txintxarri

Ventanas ISU Leihoak taldeak denboraldiko bigarren garaipena eskuratu du Gipuzkoako Ligan.

Maialen Chourraut kiroldegian jokatu du partidari Lauburu Aldaz Klinika izan du aurrez aurre.

Lasarte-Oriako taldea nagusitu da 7 eta 4. Bina gol sartu dituzte

I. Mendok eta I. Artolak; bana Tamak, Robertek eta Molinerok.

Bestalde, 3. Nazionala mailako Antonio Aroztegia taldeak 1 eta 5 garaitu du Kukuyaga F.C. taldea.

Lehen zatia, bana amaitu dute. Bigarrenean arerioa indartsu hasi arren, Lasarte-Oriako taldeak sortutako aukerak baliatu ditu golak egiteko.

USURBIL

azaroak 9. Osteguna 19:30
Zuriñe Hildagorekin berriketan
HITZALDI SOLASALDIA

azaroak 10. Ostirala 19:30
ORBELDI DANTZAN
azaroak 3tik - 12ra,
ERAKUSKETA: ALEJANDRO TAPIAREN LANAK

Noaua!ren KULTURALDIA 2017
Azaroaren 3tik 12ra

azaroak 11. Larunbata 20:00
Ane Labaka (Bertsolaria) eta Beatriz Egizabal (Antzerkilari / Ipuin Kontalaria)
ANTZEZLANA: ERRADIKALAK GARA

azaroak 12. Igandea 19:00
JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK TALDEAREN KONZERTUA

noaua
TAPAREN FAMILIA ETA INGIURIA

USURBIGO KANTU TALDEA

ORBELDI DANTZA TALDEA

DOTA PUNTUEBA

ERRADIKALAK GARA



Aspaldiko partez, errugbi giroa arnastu da Michelinen, asteburuan. Irudian, 18 urtez azpiko hainbat jokalar, lehian. TXINTXARRI

Aurpegia eta gurutzeta Beltzakeko taldeentzat

Babyauto Zarautzek garaipena erdietsi du Vigon. Partida horretan egin du debuta Adrian Apaolaza gazteak. Partida ona egin arren, Euskal Ligako taldeak ezin izan du Universitario Bilbao garaitu. 18 eta 16 urte azpiko taldeek Michelinen jokatu dute

Txintxarri

Babyauto Zarautz taldea Vigora bidaiatu zen Zilarrezko mailako zazpigarren jardunaldian. Kaleido Universidade de Vigo RCren aurka partida ederra jokatu zuen taldeak. Lehen minutuetan arerioa aurreratu zen arren, ez zuen amore eman, eta bere erritmoa ezarri zuen taldeak. Fase estatikoetan ederki jokatu eta meletan nagusi izan ziren. Ander Rekondo herritarren tantoak itxi zuen markagailua, 22 eta 33koa ezarri.

Hemezortzi jokalar izan ziren lehen taldeko deialdian eta horietako bost lasarteoriatarrek ziren: Ander Rekondo, Unai

Urruzola, Xabier Rekondo, David Vega eta Adrian Apaolaza.

Apaolazak, gainera, maila honetan debuta egin eta 80 minutuak jokatu zituen. Aipatzekoa da Apaolaza dela Beltzak Errugbi taldeko harrobiko maila guztietan jokatuak gaztea.

Bilbon, zorterik ez

Euskal Ligako Lavie ZRT Beltzak senior B taldeak El Fango zelaian jokatu zuen Universitario Bilbaoren aurka.

Bi taldeek ederki borrokatu zuten eta markagailua horren isla izan zen. Azken zazpi minutuetan ordea, Beltzak taldeak fisikoki behera egin zuen. Aulkian ordezkorik ez zuen eta

ezin izan zion erritmoari eutsi. Etxeko taldea nagusitu eta 27-17 irabazi zuen. Ritxard Yurramendi, Oihan Corchero eta Julen Aristorena lasarteoritarrek jokatu zuten partida.

Errugbia Michelinen

Bestalde, errugbi giroa izan zen berriro ere, Michelinen. 18 eta 16 urte azpiko taldeen norgehiagokak jokatu ziren. Alerioa, Marzola Rioja taldea.

18 urte azpiko partidaren Lavie ZRT/Beltza taldea nagusi izan zen zelaian, baita markagailuan ere, 38-0.

16 urte azpiko Gure Etxea ZRT/Beltzak taldeak, berriz, 19 eta 21 galdu zuen.

Maialen Chourraut, 2016ko Kiroletako Espainiako saria

Piraguismo taldeak ere Baron de Guell kopa saria eskuratu du Joko Olinpikoetan lortutako emaitzengatik

Txintxarri

2016 urteko Espainiako Kiroletako Sari Nazionalen irabazleak jakitera eman zituzten astelehenean. Jaime Gonzalez Castaño Kiroletako zuzendari nagusia buru zuen epaimahaiak, besteak beste, Maialen Chourraut piraguistak 2016 urtean egindako lana aitortu du.

Chourrautek Letizia Erregina saria jasoko du, Lidya Valentin halterofilarekin batera. Sari banaketaren data eta lekua zehazteke dago oraindik.

Piraguista gipuzkoarrak urrezko domina erdietsi zuen Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan ur biziako K-1 mailan. Euskal kirolari batek bakarka irabazten duen bigarren urrea izan zen, eta emakumezko baten lehenengoa.

Ez da hau piraguismoak 2016ko Kiroletako Sari Nazionalen eskuratu duen sari bakarra izan. Gizonezko mailan, Saul Craviotto piraguista izan da saritu nagusia eta piraguismo taldeak Baron de Güell kopa lortu du.

Alvarez, Realeko behin-behineko entrenatzailea

Gorka Alvarez lasarteoritarra Realeko behin-behineko lehen entrenatzaile izendatu dute. Hilaren hasieran Realeko zuzendaritzak Juanjo Arregi entrenatzailea kargutik kendu zuen taldeak izandako emaitza txarrak zirela eta. Lehen zazpi jardunaldietan punturik ez du lortu taldeak.

Realak entrenatzaile berria aurkitu bitartean, Alvarezk hartu du taldea zuzentzeko erantzukizuna. Ederki hasi da gainera, asteburu honetan husnako berdinketa lortu du Espanyolen aurka.

Alvarez Añorga, Hernani edo Mariño taldeetan aritua da. Uztailen taldeko bigarren entrenatzaile lanetan hasi zen.

193 lasarteoritar Behobia-Donostia lasterketan

Askorentzat hitzordu seinalatua den Behobia-Donostia jokatu da igande honetan. Aurten 193 herritarrek izena eman dute lasterketan. Korrika 191 lagunek parte hartuko dute, horietatik 155 gizonezkoak dira eta 36 emakumezko. Patinatzaileen lasterketan, aldiz, bi gizonezko daude inskribaturik.

Behobiatik aterako dira lehen korrikalariak 10:15ean, azkenak berriz, 11:40ak aldera. Baina ibilbidean barrena lasterka lehenak gurgildun aukietako partehartzaileak izango dira, 9:45ean. Osteen, rollerren txanda izango da, 9:50ean.

20 kilometroko ibilbideak guztien prestakuntza fisikoa jarriko du proban.

Nor izango da gai Ohorezko Kadeteen taldea geratzeko?

Ostadar SKTk ez du huts egin etxean, eta 2-0 irabazi dio Billabonari. Lider izaten segitzen dute, 20 punturekin

Iñigo Gonzalez

Denboraldi hasiera bikaina egiten ari da Ohorezko Kadetea. Zortzi partida jokatu ditu orain arte, eta emaitza oso onak lortu: sei garaipen eta bi berdinketa (Tolosa eta Vasconiaren aurka, kategoria

honetako oilarretako bi). Billabonarekin neurtu dituzte indarrak asteburuan, eta 2-0 irabazi. Eurria dela kausa, ezin izan dute ohi bezala jokatu, baina halere hiru puntuak poltsikoratu dituzte, Iker Sarasola eta Asier

Gonzalezaren golei esker. Antxon Navarro, Xabi Ibarra eta Iker Herrerak osatutako hirukoak prestatzen du taldea. Lan ederra egiten ari dira.

Norgehiagoka eroa

Esku-eskura eduki du garaipena Erregional Preferenteak, baina partiduko azken jokaldian sartu du 3-3koa Oiartzunek. Puntu banarekin konformatu behar izan dute bi taldeek. Saillapenaren behealdean dago taldea; lau puntu bildu ditu zortzi jardunalditan.



Denboraldi paregabea ari dira egiten Ohorezko Mailako kadeteak. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Leire
Zorionak bihotza! 5
muxu potolo etxeko
printzesa txikiarentzat
familia guztiaren
partetik!



Amaia
Zorionak polit hori,
bederatzi muxu Ekain,
aitabxo eta amatxoren
partetik. Infinitu maite
zaitugu, guapa!



Katixa
Zorionak maia, zure 9
urteak nire bizitzako onenak
izan dira. Eskerrik asko
bihotza, ama. Muxu potolo
bat munduko arrebak
onenari, Aiur. Zorionak
txapelkun, muxu handi bat,
maite zaitugu. Javi eta Biula.



Lucia
Zorionak printzesa!!
Zazpi muxu oso oso
pottolo!!



Marta
Bidelagun aparta,
Moltissimes felicitats.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en

txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

*Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.*

OHARRAK

Arrieskalletako mus txapelketa

Arrieskalleta elkarteak VII. mus txapelketa antolatuta du, azaroaren 18an, 16:00etatik aurrera. Bazkaria eta izena ematea 30 euro dira.

Honetan parte hartu nahi duten herritarrek, elkarteak bazkide batekin harremanetan jarri edo 651 709 537 telefonora deitu behar dute. Gutxienez 16 bikotek hartu dezakete parte.

Lodosara txangoa

Biyak Bat elkarteak kideak Lodosara doaz, azaroaren 23an.

Goizeko 8:00etan aterako dira Lasarte-Oriatik. Pikillo piperren kontserba-entrega eta ardo bodega bat bisitatuko dituzte.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte

izena ematerakoan; bazkide ez direnek, aldiz, 40 euro.

Gabonetako loteria

Biyak Bat elkarteak bere bazkideentzat Gabonetako loteria du. Zerbakia 71.580 da.

Nahi duenak elkarteak bulegoan izango du eskuragarri 10 eurotan. Azaroaren 30a baino lehen jaso behar da.

66 urteko kintoen afaria

Azaroak 25ean, El jardin jatetxean 66 urteko kintoen afaria egingo da. Menua 36 euro dira, musika barne.

Izena emateko 681 160 548 (Maluixa) telefono zenbakira mezu bat bidali behar da, azaroaren 22a baino lehen.

Txakurra galdu da

Azaroak 2an, kiroldegi inguruan, txakurra galdu zen. Jai du izena, eta hamar hilabete ditu. Lepoko marroia darama, eta txipa ere badu.

Inork ikusi edo aurkituko balu, gurekin harremanetan jartzea eskertuko genuke, ondorengo zenbakian: 688697119. Mila esker.



SUDOKUA

	5				3			7
	2		1	6			5	4
6			7	5		2		
8	6	4			5	7	2	
9	1	5	2			4	8	
		2			4			5
2					7	5	1	
		6	8			3	4	
4			5	3				

GUTUNAK

Antonia Adan Perez andrea

JESUS ZABALLOS LLANOS, LASARTE-ORIAKO ALKATEA

Autobus zerbitzuen murrizketa dela eta, Jesus Zaballok alkateak egindako jardunen inguruan zuk komunikabideetan egindako galderari erantzunez, utzidazu esaten urriaren 4an alkateak alegazio-idatzi bat bidali zuela Aldundira gure herriari eragiten dioten autobus-lineetan proposatutako aldaketen inguruan, zehazki Ospitaleetako lineari buruzkoetan, baita Donostia eta Billabona-Tolosa loturetan ere

(egunekoetan nahiz gauekoetan). Foru Aldundiko arduradun Marisol Garmendiarekin hitz egin ondoren egin zituen alkateak alegazio horiek, eta hark arretaz aztertzeak konpromisoa hartu zuen.

Alkateak, gainera, gai honen inguruan informazio eske Udalera etorri diren herritar guztiak hartu ditu, telefonoz nahiz aurrez aurre.

Adeitasunez.

Lan duina, bizi duina

LAB

Michelin, Ingemar, Savasa, Oasa, Muebles Inchausti, Kelan... Azken 10 urteotan Lasarte-Oria eta

Usurbil inguruan itxitako edo/ eta lanpostu galera nabarmena izan duten enpresen zerrenda luzeegia da. Gure gertuko zonalde honetan, 100 lanpostutik gora izan dira pikutara joan direnak.

Desertu industrialak bilakatu zaigu paisaia. eta PNV eta PSOEk bultzatutako erabaki eta jarrera politikoei norabide horretan sakontzen dute. Inguru hau prekarietatera eta gainbeherara bultzatuz.

Jada zentro komertzial handiek gainezka gauden honetan, Mercadona gehitzen zaigu Belartzan nahiz eta eraikitzeak baimenik hasieratik ez izan.

PNV eta PSOE borroka bizian egon dira ea nork eramango Errekalden eraikiko den Leroy Merlin berriaren meritu/saria PSOE buru zuen Eusko Jaurlaritzak hark uko egin zion Michelingo lurretan proiektu industrialak gauzatzeari eta orain zentro komertzial berriaren bat eraikitzeak asmoa omen dago. McDonalds bat ere badugu autotik jeitsi ere eign gabe zabor janaria jateko eta badirudi Goiegin Burger King bat izango dugula! Ahantzi gabe, eta aurrekoari gehituz, bai erraustegia eta baita Zubietako espetze berria ere.

Eusko Jaurlaritzatik bideratutako industri politikaz haratago, propaganda hutsean oinarritua, lerro hauetan dugu geure eskualderako PNV eta PSOEk diseinatu eta martxan ezarria duten proiektua.

Prekarietatea!

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659021945

ERRENTAN HARTU

Alokairuko etxe baten bila nabil. Nahiago dut Lasarte-Orian, baina Zubietan edo Usurbilen ere izan liteke. 630 682 716.

LANA

ESKAERA

Etxeko lanak, garbiketa lanak edo adinduak

zainduko nituzke. 674 957 145.

Emakumea eskaintzen da haurrak eta helduak zaintzeko. Gauak barne. 675830206.

Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke interna moduan, orduka edo gauetan. Harremanetarako, 634 278 198.

Emakume langilea, arduratsua, esperientziaduna eta ohitura egokiak dituen eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo orduka.

Berehala lanean hasteko prest. 632 533 714.

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606 661 048 / 943 404 015

Asteburuetan externo bezala lan egiteko, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko neure burua proposatzen dut. Telefonoa: 637 160 734.

Neska bat eskaintzen da adineko jendea zaintzeko, interna gisa. 600897758

JAIOTAKOAK

Liher Garcia Rebollo. Azaroaren 1ean.
Erik Castro Sanz. Azaroaren 3an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 10 LASA
Larunbata, 11 GIL
Igandea, 12 GIL
Astelehena, 13 DE MIGUEL
Astearte, 14 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 15 URBISTONDO
Osteguna, 16 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegi: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artetxe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administratia

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Kontzertua

Jose Ignazio Ansorena txistulariak, eta Belen Garcia organo jotzaileak, musika emanaldia eskainiko dute. Danok Kideren Musika Topaketen lehen saioa dugu.

Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.

USURBIL Dantza

Euskal dantza tradizionalen oinarritutako ikuskizuna eskainiko du Orbeldi dantza taldeak. Noaua!ren Kulturaldiko ekintza da. Sarrera, 3 euro. Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan lortu daitezke. Noaua!ko bazkideek, 1 euro Noaua!ko egoitzan erosita.

Sutegi kultur etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Azoka

V. Baserri azokak alaituko du plaza. Haurrentzako jokoak eta tailerrak izango dira. Behemendi elkarteak antolatutako ekintza.

Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

HERNANI Bigarren eskuko azoka

Bigarren Eskuko Azokan pagotxak aurkitzeko aukera izango da. *Urbietako edo Atsegindegi, 10:00etatik 14:00etara.*

HERNANI Antzerkia

Marie de Jongh antzerki taldeak *Amour* ikuskizuna eskainiko du. Haurrei zuzendutako lana da. Doan. *Biteri kultur etxea, 12:00etan.*

USURBIL Antzerkia

Ane Labaka eta Beatriz Egizabalek *Erradikalak gara* lana eskainiko dute. Sarrera, 7 euro. Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan lortu daitezke. Noaua!ko bazkideek, 5 euro Noaua!ko egoitzan erosita. *Sutegi kultur etxea, 20:00etan.*

GOIZUETA Kontzertua

Gazte Asanbladak antolatuta, Patxuko Nice taldearen kontzertua gaztetxean. *Gaztetxea, 23:30ean.*



LASARTE-ORIA Kontzertua Danok Kideren XIII. Musika Topaketei hasiera emateko Jose Ignazio Ansorena eta Ana Belen Garciaen emanaldia izango da. Egitarauak bi zati izango ditu. Lehenik Donostiako Santa Maria Basilikako organo jotzaile izandako konposagileen lanak entzun ahalko dira. Bigarren zatian, aldiz, XIX. mendeko eta gaur egungo doinuak izango dira entzungai. *Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.*

IGANDEA 12

ANDOAIN Antzerkia

Marie de Jongh antzerki taldeak *Amour* ikuskizuna eskainiko du. Haurrei zuzendutako lana da. Sarrera, 4 euro. *Bastero kulturunea, 19:30ean.*

USURBIL Kontzertua

Joseba Tapiak eta Besamotzak taldeak kontzertua eskainiko dute. Joseba Tapiaren zuzenekoetarako egitasmo berria da, bere kantutegiko 14 kanta berri eskainiko ditu. Sarrera, 10 euro. Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan lortu daitezke. Noaua!ko bazkideek, 8 euro elkartearen egoitzan erosita. *Sutegi kultur etxea, 19:30ean.*

ASTEARTEA 14

HERNANI Literatura txokoa

Ane Mayozen gidatuta, Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* nobela aztertuko dute. *Udal liburutegia, 19:30etik aurrera.*

ASTEAZKENA 15

USURBIL Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobek HH5 mailako haurrentzat ipuin kontaketa egingo du. *Sutegiko liburutegia, 18:00etan.*

USURBIL Solasaldia

Haimar Zubeldiarekin solasaldia egingo da. Uztailaren 29an, profesional bezala, txirrida ibilbidea amaitutzat eman zuen usurbildarrak. Zubeldia taldeak antolatua. *Sutegi kultur etxea, 19:00etan.*

USURBIL Erakusketa

Haimar Zubeldiaren ibilbideari buruzko argazki erakusketari hasiera emango zaio. Azaroaren 17ra arte izango da ikusgai. *Sutegi kultur etxea, 20:00etan.*

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Pello Añorgak maleta 4 eta 5 urteko haurrei zuzendutako ipuinez beteta ekarriko du. *Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegia, 18:00etan.*

USURBIL Ikastaroa

Fakturazio energetikoari buruzko ikastaroa eskainiko da. *Lanbide Eskolako ekitaldi aretoa 18:30etik 20:00etara.*

USURBIL Erakusketa

Haimar Zubeldiaren ibilbideari buruzko argazki erakusketa azaroaren 17ra arte izango da ikusgai. *Sutegi kultur etxea, 17:30etik 20:30era.*

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

La LEGO Ninjago película
Igandea: 17:00.

El castillo de cristal
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

American Assassin

Ostirala: 20:10, 22:30, 00:50.
Larunbata: 20:10, 22:30, 00:50.
Igandea: 20:10, 22:30.

Annabelle: Creation
Ostirala: 00:35.
Larunbata: 00:35.

Deep
Ostirala: 16:15, 18:10.

Larunbata: 16:15, 18:10.
Igandea: 16:15, 18:10.

El pequeño vampiro
Ostirala: 15:55.
Larunbata: 15:55.
Igandea: 15:55.

El secreto de Marrowbone
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40.

Enganchados a la muerte
Ostirala: 20:30, 22:45, 01:00.
Larunbata: 20:30, 22:45, 01:00.

Feliz día de tu

muerte
Ostirala: 15:50, 18:00, 20:20, 22:40, 00:50.
Larunbata: 15:50, 18:00, 20:20, 22:40, 00:50.
Igandea: 15:50, 18:00, 20:20, 22:40.

Geostorm
Ostirala: 22:20.
Larunbata: 22:20.
Igandea: 22:20.

Handia
Ostirala: 20:00.
Larunbata: 20:00.
Igandea: 20:00.

Operación Cahuete 2. Misión: Salvar el parque
Ostirala: 18:15.
Larunbata: 18:15.
Igandea: 18:15.

Oro
Ostirala: 16:00, 17:50, 20:15, 22:25, 00:35.

Larunbata: 16:00, 17:50, 20:15, 22:25, 00:35.
Igandea: 16:00, 17:50, 20:15, 22:25.

Toc Toc
Ostirala: 21:35, 23:45.
Larunbata: 21:35, 23:45.
Igandea: 21:35.

Thor: Ragnarok
Ostirala: 16:30, 18:20, 19:30, 22:30.
Larunbata: 16:30, 18:20, 19:30, 22:30.
Igandea: 16:00, 18:20, 19:00, 22:00.

Yo-kai watch: la película
Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.



LABURPENA

El castillo de cristal

Zuz.: Destin Daniel Cretton. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Gidoilariak:** Marti Noxon, Andrew Lanham. **Aktoreak:** Brie Larson, Naomi Watts, Woody Harrelson, Max Greenfield, Sarah Snook, Josh Caras, Charlie Shotwell, Iain Armitage, Ella Anderson. **Iraupena:** 127 minutu

Sedukzioaren jokoak

Familia nomada batean hazten da Jeannette Walls. Aita karismatikoa eta bizitzeko gogoz bete dago. Nahiz eta gaixotasun larria izan, alkoholismoa, bere imaginazioa erabiltzen du, bizi poza hori haurrei erakutsi eta familiak bizi duen egoera txarraz ez ohartzeko. Ama artista da, espiritu librea, eta ez du lau haurrak hazteko lana bere gain hartu nahi. Bere lanekin irabazitako diruak ez ditu familiaren beharrak asetzen. Izan ere, aita guztia xahutzen du. Zorrek familia batetik bestera bidaiatzea bultzatzen


du. Halere, elkar maite dute eta zoritxarrei guztiek batera aurre egiten diete.

Road movie eta drama nahasten dituen filma dugu honakoa. Jeannette Walls idazleak idatzitako *The Glass Castle* liburuan oinarritua dago. Liburuan bere haurtzaroaren oroitzapenak azaltzen ditu Wallsek. Pobrezia, aitaren alkoholismoa, nomadismoa... bere azalean bizi zituen. Bere iraganarekin adiskidetzeko terapia da liburua idaztea. Brie Larson, Naomi Watts eta Woody Harrelson dira filmeko protagonistak.




GOIEGI HOMES II

**Zozketarako izena emateko epea irekia dago
Apunta Zaitetz! Azaroaren 20 arte**



Terraza edo lorategia
etxebizitza guztietan.



Sukalde erabat
hornituak.



Garaje
itxiak.

Finantziazioa:  **CaixaBank**